

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 41. atala

DATA: 2025/05/16

GUREAN

EUSKARALDIA

Hasi da Euskaraldia, eta dozenaka herri eta hiritan hasiera ekitaldiak egin zituzten atzo arratsaldean. Giro ezinhobean ekin zioten 11 egunetako ariketari, Donostian, Soraluzen, Bilbon, Getxon, Baionan, Iruñean, Gasteizen, Laudion... Gure ikastola ere murgilduta dago festa honetan. Mailaka argazkia ateratzeaz gain, gaia landu da gela guztietan. Euskaraldiari buruzko marrazkiak, bideoak eta lemak ere sortu dituzte gure ikasleek, haien artean: "euskara maite, euskaraz bizi" edo "belarria edo ahoa prest?". Datorren astean ekintza bereziekin jarraituko dugu. Haimaika egun ditugu aurretik euskarari maitasun osoa emateko!

GURE INGURUAN

EUSKARALDIA ALTZA

MAIATZAK 16:

18:00 Hasiera ekitaldia eta auzo argazki erraldoia. Izen emateko aukera izango da eta txapa jasotzeko aukera ere bai. Ondoren Bingo musikatua eta asmakizunen jolasa, Harria parkean.

MAIATZAK 17:

20:00 Burdina Astintzen jaialdia: Asgarth, Elbereth eta Izan Bai. Larratxo Kultur Etxean.

MAIATZAK 19:

10:00 Hasiera ekitaldia Altzako ikastetxe eta ikastolekin, Harrobieta plazan.



SAGARFEST

NON: IRUN

NOIZ: MAIATZAK 18, 10:00ETAN



Anima zaitetz Irungo Sagarreken bigarren sagastiaren inaugurazio festara! Bertan, bisitak, pintxo txotx ruta, musika, trikitilariak, bertsolariak, artisuak, artistak izango dituzue... Festa Meaka auzoan izango da, Borda Txiki jatetxearen atzekaldean.